

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Emakume zientzialariak, iradokitzen duten emakumeak eta emakumea eta moda, nafar unibertsitateen udako ikastaroen gaiak

Ikastaroak datorren astean izango dira Condestablen eta UHUK Tuteran duen egoitzan

Osteguna, 2018.eko ekainak 21

Hurrengo astean Nafarroako Gobernuak eta nafarroako unibertsitateek antolatutako ondorengo udako ikastaroerik hasiera emango zaie: “Emakume zientzialariak: emakume ikertzaile eta teknologoen ikusgarritasuna”, Iruñeko UHUNek antolatuta, ekainaren 25etik 27ra izango da Iruñeko Kondestable eraikinean. “Irakokitzen duten emakumeak: gazteak hiperkonektagarritasuneko aroan heziz” Tuterako UHUNek antolatuta, ekainaren 27an izango da Tuterako UHUNeko egoitzan eta “Emakumea eta moda: tradizioetik banguardiara”, Tuterako UHUNek antolatuta, uztailaren 1ean izango da Tuterako UHUNeko egoitzan.

“Emakume zientzialariak: emakume ikertzaile eta teknologoen ikusgarritasuna”, ikastaro hau, ikuspuntu ireki eta jakintza-alorrarteko batetik, matematiketan, fisikan, kimikan, medikuntzan, historian ingeniarietan e.a. tituludun eta ikasleei zuzenduta dago, eta baita ere honakoak konbentzitu daudenei: guztion arduraren dela meritudun eta prestatuak dauden emakumeen zerrenda erabilgarria ikusgarri egitea, zientzia eta enpresa karreretan maila gorenera iritsitakoena. Aurten, bere bigarren edizioan, ikastaroen orientazioa zientzia eta teknologia lanetan emakumearen ikuspuntu historiko eta soziala ematea izango da.

“Irakokitzen duten emakumeak: gazteak hiperkonektagarritasuneko aroan heziz”, jardura honetan, Dolores Reig-ek azalduko digu nola aldatu den gure gazteen ekosistema soziala, informatiboa eta ezagutzazkoa, eta nola aldatu behar dugun metodologia haiei formakuntza ematerako orduan eta era postdigitalean bizi garen guztiok ere, formakuntza planifikatzerako orduan konektatuta bizi diren belaunadien ezaugarriak kontutan izan behar dira, metodologia pedagogiko eta teknologiko berriak (Flipped classroom, gamifikazioa, transmedia, elkarlana, bideoa, sare sozialak, etb.) eta teknologiak ahalduz tresna bezala, IKT, eta nola mundua eraldatzen ari den paradigma aldaketa bat bizitzen ari garen.

“Emakumea eta moda: tradizioetik banguardiara”, 2018 honetan, emakumearen ikusgarritasunean gizarteak emandako aurre pausoak sinbolizatuta, Tuterako UHUNek arras ezberdinak diren 3 emakume diseinatzaile gonbidatu ditu. Juana Martín razialaren bandera gisa hartutako beltzatik, Parisen desfilatu duena, Mexikon arrakasta lortu berri duen eta komiki munduari etengabeko keinuak egiten dizkion Maya Hansenetik pasatuz, edo La Condesaren eragin militarra erakusten duten

jakak, militar kutsukuak eta mugak gainditu dituztenak.

[Informazioa eta izen emateak:](#)